

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, martxoak 21



ixakur lerekin

Elurretan Axen Garitano

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

EL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.




Kafe

Bergara erdi-erdian, txoko dotore eta atsegina duzu KAFE zabaldu berria.

Gosariak, meriendak, pintxoak edota kopak hartzeko toki ederra, terraza eta guzti. Goizean goiz zabaltzen dugu egunero.

Zatoz, Bergarako KAFE berrira, Irala kaleko 10ean. Telefonoa: 76 71 22.

KAFE.



- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

AROSZTEGIA



San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefonoa eta faxa: 76 54 91

BERRIGARA

BERROALDE JAUREGIA
 48570 Bergara
 945 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

BERROALDE JAUREGIA

Zuzendaria:

Angel Azkarate

Redakzioa:

Angel Mendibil
 Angel Elkoroberezibar

Buletaria:

Angel Iturbe

Buletariak:

Angel Romero

Buletariak:

Angel Elortza

Buletariak zuzenketak:

Angel Plazaola

Angel Laskurain

Angel Labaien

Buletariak kontseilua:

Angel Elortza

Angel Angel Elkoroberezibar

Angel Labaien

Buletariak:

Angel Rodríguez

Angel Ortega & Jon Alvarez

Angel Ugalde

Angel Azkarate

Buletariak argazkia:

Angel Egaña

Buletariak:

Angel Angorri taldea

Buletariak:

Angel ale.

Buletariak:

Angel Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Buletariak:

Angel BERRIGARA

Buletariak gordailua:

945 76 03 91

Buletariak:

945 76 03 99


BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

RICARDO MURILLO Bergara Racing-ekoa

- Zertan diharduzue orain?

- Azkenaldian bizpahiru bilera egin ditugu taldean eta Gorkako kotxe igoera berriz antolatzeko aukerak aztertzen ari gara. Oraindik ezin da ezer aurreratu baina horixe da helburua; jendea animatuta dago berriz ere Gorkako igoera aurrera ateratzeko.

- Noiz izan zen azken edizioa? Zergatik ez da egin ordutik?

- Azken edizioa 1993eko irailaren 11n eta 12an jokatu zen eta orduan Aitor Zabaleta izan zen irabazlea. Zazpigarren edizioa izan zen hura baina jendeak nahiko erreta amaitu zuen antolaketan egindako lanagatik. Urte hartan Espainiak Txapelketarako pun-



tuagarria izan zen eta proba antolatzeak lan ikaragarria eman zigun. Orain, berriz, lagun talde bat ari gara edizio berri bat antolatzeko ideiarekin. Baina egitekotan modu apalago batean antolatuko genuke; ziurrenik Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango litzateke. Beharbada irail edo urri aldera antolatuko genuke.

“Gorkako Kotxe Igoera irail edo urrirako berriz ere antolatzeko asmoa daukagu”

I T U R R I O N E T I K

Aurten ez da Nazioarteko Txotxongilo Mostrarik izango

Maiatzaren 29tik ekainaren 1era bitartean antolatzekoa zen Bergarako Nazioarteko Txotxongilo Mostraren laugarren edizioa bertan behera geratu da, fetxa arazoak medio. Taun-Taunek Brasileko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdi batean parte hartzeko gonbidapena jaso du, maiatzaren 26tik 14ra bitartean, eta beraz ezinezkoa zen bi proiektu horiek tartekatzea. Brasileko Txotxongilo jaialdia lau hiritan izango da, Sao Paulon, Curitivan, Belo Horizonten eta Canelan hain zuzen ere eta Taun-Taunek, ziurrenik, “Makinatu” antzezlanaren eskeiniko du bertan. Mostraren laugarren edizioa datorren urtera arte atzeratzea erabaki da.

E S A N
D U T E

“Urteekin eta esperientziarekin barruan daramadan pailaza hori hazten joan dela sentitzen dut. Ezagutzen ez nuen zerbait deskubritu nuen eta gogoan neukan neure barnean hazten ari zen horrek zer eman ziezadakeen jakitea. (...) Gure helburua ez da jendea barre egin araztea, baizik eta harridura sorraraztea. Eta ez dugu barrea eta algara bilatzen, irriparre batekin konformatzen gara”

IDOIA AZKARATE

Oihulari Klownekoa
DEIA

“Aranzabal etorkizun haundiko jokalaria da. Erantzunik ez gutxiagoko partiduetan jartzen dut, izaera

barnerakoia duelako. Sergi lehiakide gogorra du. Oraindik ere ikasten ari da eta Realean titular izatea ondo datorkio.

Heldutasun batera iristen denean ezker hegaleko defentsa inportante bat izango da, Maldini edo Fachettiren mailakoa”

JAVIER CLEMENTE

Selekzionatzailea
EL DIARIO VASCO



EL AMOR PERJUDICA SERIAMENTE LA SALUD

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).



PERDONA BONITA PERO LUCAS ME QUERÍA A MI

Eguena: 17:00, 19:30, 22:30.



STAR TREK Primer contacto

Eguakitzita (28): 17:00, 19:30
eta 22:15.

Zinea

▼▼ **Manuel Gomez Pereira** zuzendariaren komedia honek publikoaren oniritzia jaso du. *Diana* (**Ana Belen**) eta *Santiagoren* (**Juanjo Puigcorbe**) arteko erlazioa azaltzen zaigu. Kasualidadez elkarrekin topo egin ondoren, 30 urte lehenago izandako kontuak erreparatuko dituzte. *Diana* eta *Santiago* gazteen paperean, **Penelope Cruz** eta **Gabino Diego** aktoreak.

▼▼ *Carlos* (**Pepon Nieto**), *Toni* (**Jordi Molla**) eta *Dani* (**Roberto Correcher**) gazteek pisu bat konpartitzen dute Madrilén baina zorretan direnez, laugarren pertsona bat lortzeko beharrean aurkituko dira. *Lucas* (**Alonso Caparros**) helduko da eta hirurak erabat maiteminduko dira berarekin. Baina *Lucas* hilik agertuko da pisuan eta ikerketak hasiko dira...

▼▼ **Star Trek, Primer contacto** filmeaz gain, honako filme hauek ikusi ahal izango dira Aste Santuan: **El amor tiene dos caras** (martxoaren 29an eta 30ean ohizko ordutegian). **El perro del hortelano** (hilaren 31n hiru sesiotan eta apirilaren 1ean arratsalde, 19:30etan). **Taxi** (apirilaren 3ko zine-klub emanaldian, arratsaldeko 8etan Novedadesen).

Deiak

▼ **Karlos Galarraga** pintorearen erakusketa apirilaren 4tik 13ra Kultur Etxean.

▼ **7ki** musika taldea gaur eguakitzita 11etan Nahikari tabernan.

▼ **Odol ateraldia**. Hurrengo odol ateraldia apirilaren 2an izango da, arratsaldeko 6 t'erdietan.

▼ **Jam aretoa**. *Biobazard* taldea gaur eguakitzita gaueko 10etan. Bihar zapatua, hilak 22, *A flor de piel* sexy-showa. Ateak gaueko 11:30etan zabalduko dira eta ikus-kizuna 12etan hasiko da.

Domekan, 8etan, *Thunder* taldea eta apirilaren 5ean *Vargas Blues Band* taldearen emanaldia.

Ogia

- ▼ **Domeka 23:** Konde.
- ▼ **Eguena 27:** Mizpildi.
- ▼ **Eguakitzita 28:** Ogizun.


FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitzita 21:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 22:** Puy.
- ▼ **Domeka 23:** Puy.
- ▼ **Astelehena 24:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 25:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 26:** Mozos.
- ▼ **Eguena 27:** Camacho.

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak



Kruz Gallastegi, 9 ☎ 76 07 37



Miguel
Gimbert
Hernan

ARROZTEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen
kolokazioa eta
era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 T/F 79 15 71

Mireia Gabilondo

Gaur antzezten den "El florido pensil"eko zuzendaria

Ikusmin handia sortu du Bergaran Tanttaka taldearen "El florido pensil" antzezlana. Gaur, ostirala, bi euskarazko emanaldi izango dira, bata 20:30etan eta bestea 22:45etan. Iazko otsailean estreinatu zen lan honetan, Mireia Gabilondo bergararra zuzendari lanetan aritu da.



Mireia Gabilondo izan da laneko zuzendarietako bat.

- Nolako lana da "El florido pensil"?

- Francoren denborako eskola bateko kontuak dira. Andres Sopena idazlea da liburuaren egilea, garai hartako anekdotak eta gorabeherak oroitzen dituztenak. Oso lan dibertigarria da. Guk liburuaren egoitzea egin behar izan dugu antzerkilana egin ahal izateko; liburuaren lehen pertsona idatzita dagoenez, beste pertsonaia batzuk asmatu egin behar izan ditugu, abade batek mutiko bati entzuten dion konfesioa ere sartu dugu, orduko zine eta irrati erreferentziak ere azaltzen dira...

- Zergatik dira pertsonaia guztiak gizonak?

- Gizonezko baten ikuspegitik idatzita dagoelako liburuaren eta orduan

neska asko ez zirelako eskolara ere joaten. Neskak eta mutikoak elkarrekin klasean egotea oso arraroa zen eta beraz mutikoen kontuak bakarrik azaltzen dira. Andres Sopenak, "La morena de la copla" bere bigarren liburuan, nesken mundu hori isladatu nahi izan du. Badirudi banandutako bi mundu zirela.

- Euskara eta gaztelarako bertsioen artean diferentzia asko daude?

- Ez, oso antzerakoak dira. Gainera, euskarazko bertsioan, gaztelarazko hitz asko esaten dira. Orduan ezin zen eskolan euskaraz egin eta eskolako giro hori azaldu nahi izan dugu: maisuak berba egiten duenean gaztelaraz egiten du eta mutikoak el-

"Francoren denborako eskola bateko kontuak azaltzen dira eta oso lan dibertigarria da"

karrekin ari direnean euskaraz. Hizkuntza biak nahastuta daude lanean.

- "Umekeriak" lanaren ondoren, zuzentzen duzun bigarren lana da hau. Nolako esperientzia izan da?

- Oso ona. Aurrekoan neu bakarrik aritu nintzen eta oraingoan Fernadok eta biok egitea erabaki genuen. Eta ondorengo konpondu gara. Beti izan dut gogoia zuzendari lana probatzeko, ea horretarako gai nintzen jakin nahi nuen. Eta "Umekeriak" lanarekin pauso hori eman ondoren, oraingoan bildur gutxiagoz ekin diot. Hala ere, muntaia bakoitzak mundu bat da eta beti egoten dira zailtasunak. Baina badirudi aktoreak ere gustora geratu direla. Orain katalanezko bertsioa ere zuzentzea proposatu digute biei.

- Telebistan eta antzerkian buru-belarri zabilta. Eta zinean?

- Iaz Ana Diezek egin zuen filmean paper txiki bat izan nuen baina hemen ez da zine gehiegi egiten eta horrez gain zinean zineko aktore ezagunak direnak kontratatzen dira gehienetan, oso zaila da hor sartzea.

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibartekoan
espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Mediku asistentziarik gabe gartzelan

Luis Mari Azkargorta "Kanto". 1994ko azaroa. Sevilla-2 gartzela. Luis Mari belanean min handia sentitu zuen eta gartzelako medikuari kontsulta eskatu zion. Lehenengo kontsulta hartan medikuak anti-inflamatorio batzuk eman zizkion, diagnostikoa zein zen esan gabe. Denbora aurrera joan ahala, belauna gero eta okerrago zegoen, gero eta haundituago eta minberaago, eta Luis Mari traumatologo batek ikustea eskatu zuen. Gartzelako arduradunek ez zioten eskari hori onartu eta bere mediku partikularak ikusi ahal izatea eskatu zuen. Epailerean bitartez, urtebete beranduago lortu zuen bigarren eskari hori onartzea.

1995eko azaroa. Mila gorabeheraren ondoren, azkenean gartzelaz kanpoko traumatologo bat sartu ahal izan zen eta urtebete lehenagorik susmatzen genuena diagnostikatu zuen: menisko haustura. Traumatologoaren esanetan, belauna oso egoera txarrean zegoen eta lehenbailehen operatzea komeni zen, ondorio okerragorik ez izateko. Hala jakinarazi zion gartzelako medikuari ere eta zerbait gertatzen baizitzaion, gartzelako medikua bera izango zela horren arduraduna.

1996ko urtarrila. Hospitalera eraman zuten Luis Mari erresonantzia bat egiteko. Erresonantziak agerian utzi zuen lesioaren larritasuna, baina operatu ahal izateko, urte eta erditi bi urtera itxoin beharko zuela adierazi zioten. Hori ikusita, berehala Euskadira ekartzea eskatu zuen, Donostiako Hospitalen segituan operatuko zutela esan baitzioten. Eskari hau ere ez zioten onartu.

1996ko ekaina. Luis Mari Huescako gartzelara eraman zuten eta berriz tramite guztiei ekin behar izan zitzaion. Huescako gartzelan Sevillatik jasotako historiala baino ez zuten aztertu. Handik hilabete batzutara Huescako Hospitalera eraman zuten eta bertan 1997ko urtarrilean edo otsailean operatuko zutela adierazi zioten.

1997ko martxo. Luis Mari Azkargorta ez du operatu oraindik, eta gartzelako medikuari azalpenak eskatu zizkionenean honen erantzuna hauxe izan zen: eta sinatu egin al duzu operatu egingo zaituztela?

Ondorioa: preso politiko izateak pertsonak dituen eskubide guztiak galtzea esan nahi du.

KANTOREN EMATZEA

Institutuak 25 urte

Orain 25 urte, aldaketa garaian, inork espero ez zuen krisialdi ekonomikoaren lehen urratsekin batera jai zen. Xume, ilusio handiz, bokazio publikoarekin eta ez dakit zer nolako helburuekin gauzatu zen Bergarako Institutua.

Hasierako Institutu hartatik gaurko honetarako ibilbidean denetarik ezagutu du: aurrera emandako pausoak, oker emandakoak, norabide egokiagoa aurkitzeko asmoz emanikoak, denetik. Hori bai, kanpoko itxura pittin bat gorde badu ere, berez iaeraren parte garrantzizkoak erabat aldatu dira. Eta honetan aipatu beharko genituzke euskalduntzean, funtzionamendu irekian, denentzako zerbitzua izatean eta herrian integratzean emandako pauso sendo eta bikainak.

Makina bat ikasle eta irakasle pasa dira bertatik. Horietako batzuek laga gaituzte (haientzat ere gure oroimena) baina gehienengan, euren oroimenean, Institutuan igarotako denborak izango du bere lekua; eta oroimen asko bezala osagai bakarrez edo desberdinez osatuta egongo da: une alai eta pozgarriez eta bestelakoez, izan ere, ikastetxe batek denetarik ematen du.

25. urteurrenak, berriro ere Institutua aldaketa garaian harrapatu du. Zorionez, aldaketa aurrikusita zegoenez, azken urteotan, irakaskuntzan emango diren aldaketei (Erreformari) ahalik eta hobekien erantzuteko prestatzen harrapatu gaitu. Baditugu esperantzak datozen urteetan presta-

kuntza eta lanaren fruituak jasoko ditugula eta, ea 50. urteurrena ospatzen denean gehienak berriro ikusteko eta ospatzeko aukera izaten dugun.

25. urteurrena ospatzeko asmoz, Erramu Zaturako zenbait ekitaldi prestatu dira.

XABIER LARRAÑAĞA.

IPINTZA INSTITUTUTUKO IRAKASLEA

Zorionak San Martin eskolari

Zuen ikastetxeak Kultur Etxean antolatatu dituen hitzaldiak direla eta aipamen batzu egin nahi izango genituzke:

1.- Eskolari eskerrak eman, aukera eman digulako guraso izaten ikasi ahal izateko.

2.- Eskerrak eman Kultur Etxean egiteagatik, horrela beste ikastetxeetako gurasoek parte hartu ahal izan dutelako denontzat aberasgarria izanik.

3.- Mesedez, ez daitezela azkenak izan, ea laguntzen diguzuen gure guraso papera hobeto betetzen.

4.- Azkenerako kritika zorrotza: Kultur Etxe marko polita bada ere hurrengoetarako beste toki zabal eta haundiago bat aurkitu behar zenuketela uste dugu.

Adiorik ez eta tonto jarraitu.

A. M. (NAN: 15.365.321)

Aste Santuan Berrigararik ez

Datorren ostiralean ez da Berrigararik kaleratuko. Aste Santuko oporrak direla eta, hurrengo ostiralera arte, hilak 4, ez duzu etxean errebistarik jasoko. Bitartean, ondo pasa opor egunetan eta hurrengora arte.

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Abelburuak eta baserriko produktuak Erramu Zapatuan

Aberri Eguna

Aurreko ale batean aurreratu genizuen moduan, EAJK Bergaran antolatuko du aurten Aberri Eguna apirilaren 30ean. Eguerdiko 12etan ekitaldi politikoa izango da Udal Pilotalekuan. Bertan, Asier Aranbarri EGIko kidea, Joseba Egibar GBBko presidentea eta Jose Antonio Ardanza Lehendakaria izango dira; ondoren, bazkaria izango da. Batzokian eskura daitezke txartelak.

Panti gose greban

Murtziako espetxean dagoen Xabier Oregi "Pantik" gose grebari ekin zion joan zen eguenean, hilak 13, Euskal Herrira ekartzea eskatzeko, euskal presoak egiten ari diren gose grebaren hirugarren txandan. Bestalde, Luis Etxeberrriak 25 egun eman ditu gose greban eta 18 kilo galdu ditu. Azken egunetan osasun arazoak izan ditu.

Aste Santuaren atarian, ohitura denez, Erramu Zapatuko feria izango da larunbat honetan Bergaran. Goizeko 9:30etan zabalduko da feria Ibargarai kalean eta Seminarioko patioan. Abelburuak, baserriko produktuak eta makineria, eta txorimaloak erakutsiko dira, besteak beste. Fraiskozuri eta Simon Arrieta plazetan eta Irala kalean, berriz, gazta, taloa, txorizoa, sagardoa edota Errioxako ardoa dastatu ahal izango dira. 150 postutik gora jarriko dira. Eguerdiko 12:30etan, txorimalo lehiaketako sari banaketa egingo da Ibargarain eta 13:30etan, Azpillaga eta Agirre bertsolarien saioa izango da Seminarioko patioan. Aurtengo txorimalo lehiaketarako 16 taldek eman dute izena.

Bertsolari onentsuenak frontoian

Arratsaldeko 5:30etan, idi probak eta ahari jokoak izango dira Beheko Estazioan eta ume jokoak San Martin plazan. Gaueko 10:15etan, azkenik, bertso jaialdia izango da Udal Pilotalekuan. Euzkitze, Amuriza, Iturriaga, Lazkano, Gorrotxategi eta Ainhoa Agirrezaldegi



Ganadua izango da feriaiko protagonista nagusia.

bergararra arituko dira bertsotan eta Laxaro Azkune gai-jartzaile. Sarreak 800 pezetatan jarriko dira salgai.

Idi probak eta ahari jokoak

Idi proba eta ahari jokuekin azken urteetan galduta zegoen ohitura berreskuratu nahi izan dute antolatzaileek. Ez da demarik izango, erakustaldia baizik.

Bi idi pare ekarriko dituzte eta 1.200-1.500 kilotako harri txikiak erabiliko dituzte, 25 bat minutuko txandetan; Horrez gain, 3 ahari ekarriko dira eta saioak, guztira, ordu terdi inguru iraungo du.

Trafiko aldaketa

Erramu Zapatuko feria dela eta, zenbait trafiko aldaketa izango dira herriaren erdialdean. Feria-ko postuak kalean jarriko direnez, Ibargarai, Herri Lagunak eta Irala kaleak trafikorako itxita egongo dira.

Ondorioz, kale haue-tako aparkalekuak eta Seminarioko patioaren ondokoa (Txurruka) goizeko 6etarako kotxerik gabe egon beharko dira. Egun horretan herriaren erdian kotxerik ez ibiltzea gomendatu du Udaltzaingoak, eta autoa erabiltzea ezinbestekoa bada, erdigunetik pasatu barik egitea eskatu du.

JAIOTAKOAK

Ayala Sasieta Garmendia
Martxoak 3.
Ibai Asier Linazisoro Molina
Martxoak 10.
Sonia Gonzalez Gonzalez
Martxoak 14.
Andoni Breñaña Ugalde
Martxoak 16.
Iban Diez Centeno
Martxoak 16.

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tl. 79 27 27 / 79 13 55



Jaialdia Gartzela Zaharrean

Gaztetxoentzako jaialdia izango da zapatuan arratsaldeko 6etan Gartzela Zaharrean. Edurne eta Josune bikotea, Aitzol Mujika, eta Itxaro, Maite eta Aitzol trikitilariak izango dira. Sarrerak 100 pta. balio du; Gartzela Zaharreko txartela dutenentzat doan.

Ekitaldiak Ipintza Institutuan

Ipintza Institutuak 25 urte betetzen dituela eta, antolatu den Kultur Asteari amaiera emateko zapatuan ekitaldi bat antolatuko da institutuan bertan. 12:30etan, ikastetxeko langile izandako, gaur egungo eskola kontseiluko kide, herriko alkate, ikuskari eta beste ikastetxeetako zuzendariei ongi etorria egingo zaie eta Areto Nagusian ekitalditxo bat izango da. Ondoren luntxa eskainiko da.

Kamisetak salgai

Aranzadi Ikastolak 25. urteurrenerako atera dituen kamisetak salgai izango dira Erramu Zapatu egunean Simon Arrieta eta Fraiskozuri plazetan, eta Seminarioko patioan.

Gorlako kantina eta igerilekuetako taberna

Piszinetako taberna eta Gorlako kantina hartzeko eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 1ean, amaituko da. Interesa dutenek, pleguak eta informazio gehigarria Udaletxean har ditzakete.

Igerilekuak itxita

Zapatuan, 14:30etatik aurrera, piszinak itxita egongo dira igeri txapelketak jokatu direlako.



Udaberriko eguraldia izan dugu neguko azken zatian.

Hilabete egon da euririk egin barik neguko azken zatian

Otsailaren 16tik, azken egunotan bakarrik egin du euria

Neguari agur esan eta udaberriari ongi etorria eman genion atzo. Esan daiteke negu lehor samarra izan dugula azken hilabeteari begiratzen badiogu, baina ez ordea, neguko lehen zatiari dagokionez, 1996ko abenduan eta aurtengo urtarrilean euri dexente egin baitu.

Luis Mari Agirre Narbaizabolu baserrikoak, Bergaran egiten duen euriaren eta tenperaturaren datuak jasotzen ditu. Berak emandako datuen arabera, iazko abenduan 204 litro jaso ziren metro karratuko; aurtengo urtarrilean, berriz, 224 litro jaso dira, azken 14 urteetako urtariletako bataz bestekoaren (146 metro litro karratuko) gainetik.

Aurtengo neguko lehen bi hilabeteak euritsuak izan badira ere,

otsail eta martxoan ez du ia euririk egin. Azken 14 urteetako otsaileko batazbestekoa 138 litrokoa bada, aurtun 35 litro jaso dira bakarrik. Martxoan, berriz, azken egunotan bakarrik egin du euria Bergaran. Eguakitzean 0,7 litro jaso ziren eta zapatuan, ostera 3,3 litro metro karratuko. Bestalde, esan behar da, ia hilabete egon dela euri tantarik egin barik: otsailaren 16tik martxoaren 14ra arte ez du euririk egin. Iazko otsailean, berriz, 352 litro jaso ziren eta martxoan 97 litro.

Neguauren bigarren zatia, lehorra ezezik, bero samarra ere izan da. Aurtengo otsaileko batazbestekoa 11 gradutakoa izan da, normalean egiten duena baino ia hiru gradu altuagoa.

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

ARREGI

Eraikuntza
materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

Jose Luis Elkororen aldeko manifestazioa antolatu du HBk


Zapatu honetan, 13:00etan, San Martin plazan

Zapaturako iragarri den Jose Luis Elkororen aldeko manifestazioarako deia egin zuten joan zen asteazkenean prentsaren aurrean, Mari Karmen Aiastui, Elkororen emazteak, Kristina Elkoro alabak, eta Agurne Barruso eta Jose Ramon Etxeberria HBko zinegotziek.

Jose Luis Elkorok eta beste hiru Mahai Nazionaleko kide erbestean eta 19 mahaikide gartzelan egotearen arrazoia, Alternatiba Demokratikoa, "mahai gainean dagoen pake proposamen bakarra", herriratzea eta zabaltzea dela ekarri zuten gogora Elkororen alabak, eta "Euskal Herrian justizian oinarritutako pakea lortzea" izan dela azken 20 urte hauetan Elkororen helburua esan zuten.

Jose Luis Elkorok joan zen otsailaren 12an alde egin zuten Bergaratik. Gaur egun Bruselan dago, baina Dinamarkan eta Noruegan ere egon da hilabete t'erdi honetan. Berarekin batera dauden beste mahaikideak bezala, Europako hainbat erakunde eta talderekin harremanetan izan da, "HBko Mahai Nazio-

*nalaren kriminalizazioa salatze*ko eta Europako hainbat forotara zabaltzeko". Elkororen emazteak eta alabak, hainbat eta hainbat lagunek erakutsitako elkartasuna eskertu zuten eta Europar dauden HBko Mahai Nazionaleko kideen berri Estatuko komunikabideetan ia oihartzunik eduki ez izana salatu zuten.



■ Lokalen inguruko bilera

Gazteentzako lokalen inguruko bilera baterako deia zabaldu die Udaleko Kultur Taldeak, Gazteria eta Jaietako batzordeak herriko ikastetxeetako, eta gazte eta kultur taldeetako ordezkariari. Bilera datorren martitzenean, hilak 25, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean izango da. Azkenaldian bileretan izan dira Udaleko eta Gazte Asanbladako kideak, gazteentzako lokalaren arazoari irtenbidea topatu nahian, baina akordiorik ez dute lortu eta orain, lokalen kontua lehenbailehen konpontzeko, herriko hainbat kolektiboren iritzia jakin nahi du Udalak. Horretarako egin du martitzenerako deia.

Pegatina lehiaketa

Jardunek Pazkuetan ateratzen duen pegatinako esaldia asmatzeko lehiaketa antolatu da. Horretarako herriko taberna eta ikastetxeetan kutxa batzuk jarri dira. Lehiaketan parte hartu nahi duenak proposatzen duen esaldia, izen-abizenak eta telefonoa paper batean apuntatu eta kajan sartu beharko du apirilaren 14a baino lehen. Aukeratutako esaldia Bergarako jaietako pegatinetan erabiliko da eta egileak 10.000 pezetako saria jasoko du.

Gaur emango da ETBtik San Martinen Estanpa

Gaur gaueko 10etan emango da San Martinen Estanpa ikuskizuna ETBtik. Bihar, bestalde, afaria eta haurrentzako merienda izango dira Udal biltegian, ikuskizunean parte hartu zutenekin. Afari ostean, Ibaiak taldeak alaitutako dantzaldia izango da.

Euskara irakaslea

Apiriletik ekainera ordezkapena egiteko euskara irakaslea hartu nahi du Akulu AEK euskaltegiak. Interesatuak 76 05 18 telefonora deitu dezakete.

Barrenkalekoen bazkaria

Barrenkalekoen bazkaria antolatu da apirilaren 19rako Barrenkale bertan. Bazkaria 14:30etan izango da eta menua honako hau: hegazti salda, legatza albardatuta, solomoa oportoaz sagar purearekin, San Markos tarta, txurreroaren kafea eta kopa, eta prezioa 3.500 pta. Izena eman eman behar da apirilaren 13a baino lehen Lazkanon, Biltokin, Intxortan, Dixulan, Ollagorran edota Sirimirin.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Igeri elkartearen 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi apirilean

Bergara Igeri Elkar-teak, 25 urte betetzen di-tuela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Aste Santu osterako. Apirilaren 12an, zapatua, esate baterako, herri bazkaria izango da 14:30etan, Jam aretoan. Igeri elkartean ibili dire-nak eta dabiltzanak edota hauen gurasoak gonbida-tuta daude. Bazkaldu au-rretik, ordea, igeriketa sai-otxo bat antolatuko da pis-zinetan: 25 metro egin be-harko dituzte bertaraten direnek.

Bestalde, apirilaren 14-tik 20ra bitartean, igerike-tari buruzko argazki era-kusketa izango da ikusgai Kultur Etxean. Herriko igerilariei ateratako argazkiak eta Bergaran jo-katu diren hainbat txapel-ketatan ateratako argaz-kiak erakutsiko dira, bes-teak beste.

Erakusketa apirilaren 14ean arratsaldeko 7etan zabalduko da eta horre-kin batera, igeri elkarteak 25. urteurrenerako pre-s-tatu duen aldizkaria aur-keztuko da. Juan Luis Bi-kuña eta Gerardo Puente kazetariak ari dira aldiz-karia egiten. 40 bat orrial-detan, elkartearen histo-riari errebasoa emango zaio argazki, elkarriketa eta artikuluen bitartez.



Igeri elkarteko buruek aurkeztu zituzten 25. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiak.

Apirilaren 19 eta 20an, bestalde, junior eta nugu-sien mailako herrialde ar-teko Euskadiko igeriketa txapelketa jokatu da. Txapelketan denborarik onenak egiten dituztenak Espainiako txapelketara joango dira Euskadi or-dezkatuz.

Espainiako txapeldun

Bergara Igeri Elkartea 1972ko otsailean sortu zen. Urte bereko martxo-aren 19an, berriz, lehe-nengo aldiz, txapelketa bat antolatu zen Agorrosi-nen eta ekainean lehen

aldiz hartu zuten parte txapelketa batean igeri elkarteko kideek. Sorreratik gaur egun arte, 250 bat igerilari ibili dira taldean eta Jesus Jauregi aritu da monitorea lanetan urte guzti horietan. Jauregik esan digun bezala, igeri elkarteak bi urrezko aro bizi izan ditu hogeitabost urte hauetan: "1976.etik 78ra bitartean, Gipuzkoako talderik onena izan gi-nen eta banaka ere domi-na ugari lortu genituen. 1987.etik 92ra bitartean ere oso ondo ibili ginen eta Ion Muniategi, Espainiako txapeldun izan zen infan-

til mailan".

Jesus Jauregik dioe-nez, Eskola kirolak kalte egin dio igeri elkarteari gaur egun haurrek kirol ugari praktikatzen dituz-telako eta ondorioz, igeri-keta, sakrifio eta ordu as-ko eskatzen dituen bana-kako kirola, egitera ez di-relako animatzen. Igeri elkarteak duen beste ar-a-zoetako bat piszinak era-biltzeko ordu gutxi dituz-tela eta igerilekuak txiki eta zaharkituak geratu di-rela da. Gaur egun An-dres Alberdi da elkarteko presidentea eta 15 igerila-ri ari dira taldean.

**JAUNARTZEAK, EZKONTZAK,
DESPEDIDAK, KARTA,
EGUNEKO MENUA,
LOGELAK.**



ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA.
Telefonoak 76 20 07 - 76 42 57

Elikadura

Haurren elikadura

- Nolako elikadura izan behar dute 6 hilabete baino gutxiagoko haurrek?

- Gaur egun, gurasoek era guztietako plangintzak egiten dituzte beren haurrentzat jaio baino lehen eta, elikadurari dagokionez, amagandiko edoskitze edota edoskitze artifiziala aukeratzen dute.

- Beti entzun izan da amagandikoa hobea dela...

- Gizakia bere inguru-nearen aldaketetara egokitu den bezala, amaren esnea haurraren beharretara egokitzen da. Lehendabiziko egunetatik edoskitzea amaitzen den arte esnearen konposaketa aldatuz doa haurraren adinaren arabera eta, horrez gain, konposaketa ezberdina da eguneko esne-hartualdia eta esne-hartualdiaren hasiera edo amaiera kontutan izanik. Esne artifizialek ezin dute lortu amaren esnearen moldagarritasun hori.

- Zeintzuk dira amaren esneak dituen beste propietateak?

- Gaixotasun infekzioen kontrako babesa ere

eskeintzen du, gaisotasun larriak barne, edoskitzeak irauten duen bitartean. Honak ez du esan nahi haurrak ez duela inolako gaisotasun infekziosorik jasango baizik eta kasu gutxiago eta arinagoak izango dituela gastroenteritis, otitis eta horrelakotan. Bestalde, amarentzat zein haurarentzat bularreko elikadurak abantaila psikologikoak dituela ikusi da; amak haurraren haz-



ARRATE BENGOA

(Pediatra)

kuntzan sartuta dagoela ikusiko du eta biek ere elkarrentzako ezinbesteko izatearen zentsazioa izango dute, oso kontaktu fisiko intimo eta inportantea emanez.

- Zer gehiago esan daiteke elikadurari buruz?

- Haur jaioberri baten

“Haur sano bati hasieran esnea bakarrik eman behar zaio, amaren esnea ahal bada”



Ama eta haurraren arteko erlazioa hestua izan behar da.

elikadura egokia izateko amaren eta haurraren arteko kooperazioa eman behar da haurrak amaren dependentzia duen bitartean. Elikadura praktika egoki batzuk ezartzeak amaren eta haurraren ongizate emozionalean zeresana izango du. Eta erditze aretoan bertan bularreko elikadura hasi nahi duten amei laguntza guttia eskeini behar zaie, erditze ondorengo sei orduetan amaren eta haurraren arteko banaketa edo biberoi elikadura baztertuz. Ama etxera itzultzen denean ohizkoa da zalantzak izatea: esne kantitatea nahikoa izango ote den, titipuntetan mina (postura aldaketa nahiko izaten da hobetzeko)... eta guzti honi nekea gehitzen zaio. Hori dela eta familiaren laguntza oso inportantea da.

Haurrak lehen 6 hilabeteak egin arte esnea bakarrik har dezake eta ondoren elikadura aldatkorragoa izango da: barazkiak, frutak... Beraz, haur sano bati hasieran esnea bakarrik eman behar zaio, amaren esnea ahal bada. Eta erabaki pertsonalagatik edo ezintasunagatik esne artifiziala ematea erabakitzen bada, behi esne egokitua gomendatzen da ematea. Honetan ere amaren eta haurraren arteko erlazio hestua izan behar da.

**P
B**

PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK


• APAINKETARAKO PINTURAK

• GARBIKETAK

• ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

JOSE LUIS ELKORO



ETXERA



MAHAI NAZIONALA ASKATU

MANIFESTAZIOA BERGARAN

*Erramu zapatuan,
martxoak 22,
eguerdiko ordubatean
herriko plazan.*

DEMOKRAZIA EUSKAL HERRIARENTZAT

Bergarako HERRI BATASUNA

Seminarioko museoa

Erret Mintegiko Zientzia Bilduma berreskuratzen

1992tik 96ra bitartean Erret Mintegiko Zientzia Bildumaren berreskuratze eta txukuntze lanekin hasi ondoren, datozen bost urteetan etorkizuneko bilduma aurkezgarria osatzeko asmoa dago. Museoa jendearentzako zabaldu baino lehen, bilduma hori osatuko duten 600-700 piezak prest egon beharko dira. Seminarioko Zientzia Museoa gero eta gertuago dago.

Orain bost urte Erret Mintegiko Zientzia Bilduma oso egoera txarrean zegoen eta Xabier Aranburu udal museologoari bilduma hori berreskuratzeko agindua luzatu zitzaion. 1992an bildumaren konposizioa eta balioa ere ez ziren ezagutzen eta beraz inbentario lana egin behar izan da denbora honetan. Xabier Aranburuk esan digunez, "bildumako ale guztiak banan banan aztertu ditugu eta orain bildumaren konposizioa zehaztasun guztiz ezagutzen dugu. Lanean hasi ginenean bilduma arriskuan zegoen; segurtasun neurririk ez zegoen, bal-



Xabier Aranburu museologoa XIX. mendeko ispilu paraboliko baten ondoan.

dintza klimatikoak ere oso txarrak ziren, pieza asko herdoilduak zeuden, beste batzuk puskatuta edo lurrean botata... Orain, egoera bestelakoa da: baldintzak egokiak dira eta piezen errestaurazio prozesua martxan dago, nahiz eta hainbat pieza ezin izango diren errestauratu. Piezen balioari dagokionez, baditugu pieza oso onak eta baita balio baundiegirik ez dutenak ere".

Guztira 2.829 ale daude Erret Mintegian, bost sekziotan banatuta: Zientzia eta Teknika aparailuen sekzioan XVIII. mendetik XX. mendera bitarteko fisika eta kimika instrumentuak daude (250 pieza denera); Zoologia sekzioan, naturalizatutako ornodunak, moluskoak, korallak eta alkoholetan kontserbatutako narrastiak eta artropodoak (1.022 pieza); Giza Anatomia sekzioan

XIX. mendea eta XX. mendearen hasierako modelo anatomikoak (7 pieza); Paleontologia sekzioan 369 fosil daude eta, azkenik, Mineralogia sekzioan 1.181 mineral eta arroka.

Piezen aukeraketa

Orain zehaztutako programaren arabera, lan horien aukeraketa bat egingo da datozen 5-6 urteetan, etorkizuneko bil-

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65



Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85



Paradisuko hegazia
(*Paradisaea rubra*).

Pazifikoko Saoneki irlako espezia.
Museoko pieza historikoetako bat.



Lepazuria (*Martes foina*).

Museoarekin harremana duen biologo batek iaz egindako dohaintza.
Bide bazterrean hilik topatu zuen biologoak.

duma aurkezgarria osatuz. Xabier Aranburuk argitzen digun moduan, "museo bat egiteko hainbat gauza behar dira: bilduma batetik (gure kasuan 2.829 pieza horiek), erakusketa iraunkorra bestetik (piezen selekzio bat piezen informazioarekin batera) eta, azkenik, museo bera, edifizioa. 96an piezen selekzioa egin eta gero oraingo plangintza diseinatu den kolekzioa osatu eta puntu puntuan jartzeko izango da".

Egindako azterketaren arabera, etorkizuneko bilduma aurkezgarri horretan 686 pieza bilduko lirateke, Zientzia eta Teknika aparailuen sekzioko 185 pieza, Giza Anatomia sekzioko 6, Zoologian beste 300 pieza egongo dira, Mineralogian 70 eta Paleontologia sekzioan 125 pieza. Normala denez, piezen balioa eta egoera izan da kontutan aukeraketa egiteko orduan. Aranburu-

ren hitzetan, "bi helburu lortu nahi dira: museoaren tradizioa bereganatu eta integratzea batetik eta zientziak koherentziarekin eta zentzu lojiko batekin erakustea bestetik. Beraz, erdipurdika dauden sekzioak pieza berriekekin osatuko ditugu. Adibidez zoologian aprobetxagarriak diren 103 piezek ez dute koherentzia tematiko sendo bat eta bilduma hori osatzeko, esparru geografikoa murriztu dugu: mundu guztian aritu beharrean Euskal Herrira mugatu gara eta beraz Euskal Herriko ugaztunen bilduma bat ere osatuko dugu, beste 197 piezekin. Kasu honeetan 163 pieza berri lortu beharko ditugu".

Pieza berriak

Pieza berriak lortu ahal izateko Gipuzkoako hainbat natur talderekin, biologo partikularekin edo Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro de-

partamentuko basanimalien unitatearekin kolaborazio hitzarmenak lortu dira. Orain gutxi, kolaborazio horri esker, Txorizzen bat (Avetoro gaztelaraz) eskuratu ahal izan dute museoarako; "horrelako hegaztiak fadura eta zingiratan ibiltzen dira eta ebiztari batek horrelako bat harrapatu zuen Txingudin. Espezie hau oso babestua dago, desagertzeko zorian baitago (Estatu osoan 100 bikote baino gutxiago omen daude) eta basozainak ebiztariari beharrezko isuna jarri ondoren, pieza kendu eta guri eskeini zigun" azaldu digu museologoak. Bestalde, Mineralogia eta Paleontologia sailetako piezak lortzeko akordio batera iritsi da Aranzadi Zientzia Elkarteko Geologia sailarekin, noizean behin mendi irteerak egingo direlarik museoari interesatzen zaizkion piezak batzeko. Europako museo garrantzi-

tsuenekin ere harremanak mantentzen dira, hala nola, Pariseko Historia Naturaleko Museoarekin, Terrassako Kataluniako Zientzia eta Teknikaren Museoarekin edo Madrilgo Zientzia eta Teknologien Museoarekin.

Xabier Aranbururen ustez, kopuruaren aldetik, bilduma onargarria osatuko da; "Londres edo Pariseko zientzia museoen modukoa izan ez arren, 700 alez osatutako bildumarekin zientziei buruzko erakusketa iraunkor gano-razkoa egin daitekeela argi dago. Konposizioaren aldetik bakarra izango litzateke Euskal Herri mailan, ez baitago zientziaren hainbeste arlo denak batera jasotzen dituen museo-rik inguruan. Ez dago bilduma zoologiko historikorik eta ez dago ezta zientzia instrumentuez osatutako bilduma aurkeztu duen museo-rik. Leioako Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Euskal

KONDE

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

Serrin-en erregulatzailea.



XIX.ean itsasuntzi eta lantegien argiztapenerako erabilia.



Txori-zezena (*Botaurus stellaris*).

Espezie hau oso babestua dago Estatu osoan 100 bikote baino gutxiago baitaude.

Museoak gebienbat medikuntza instrumentala du; honekin batera badituzte 20-25 bat aintzinako aparatu zientifiko-tekniko eta gure kolezioa, berriz, 185 aparailuz osatuta egongo da. Nik uste balio haundiko kolezioa osatuko dugula". Eta 1992-96 urte bitarte horretan museoan urteko 5 milioi pezeta inbertitu badira, plangintza

honi aurre egiteko urteko 12 milioi pezeta inguru inbertitu beharko dela uste da.

Museoa Seminarioan

Asmoa, esan bezala, etorkizunean Erret Mintegiko Museoak bere atak zabaltzea litzateke. 2002. urtera arteko plangintza burutu ondoren, Museoa

non kokatu erabaki beharko da. Gaur egun museoan piezak Seminarioko gela batean (175 m2koa) daude eta biltegi izateko ere txikia geratu da. Espazio falta nabaria da eta Udalak museoan jartzeko leku aproposa zehaztu beharko du etorkizunean. Udal museoaren ustetan lojikoena museoan Seminarioan ber-

tan irekitzea izango litzateke, "beti hor egon delako eta historia aldetik leku horrek pisu nabaria izan duelako. Oraingo biltegi ez dago ezertarako tokirik eta beraz espazio handiago bat egokitu beharko da: erakusketa iraunkorrerako gelak, biltegia, liburutegia eta laborategi bat". Museoan lan-taldea ere haunditu egingo da etorkizunera begira: fisiko edo kimiko bat, zoologo bat, Aranzadi elkartereko geologo bat eta udal museoaren bera izango dira lanean bilduma aurkezgarria prestatzeko eta, hurrengo fasean, behin museoak zabaltzen denean, museoaren izaten duten egitura bera izango du, bisita gidatuak eta horrelakoak antolatuz. Horrela, Erret Mintegiko Zientzia Museoaren berrindartuta iritsiko da XXI. mendera.

KABARET IKUTUDUN IKUSKIZUN ERAKARGARRIA



Sexy Showa

MARTXOAN ◊ MARTXOAN ◊ MARTXOAN

22 Larunbata

gaueko 11:30etan zabalduko dira ateak

gaueko 12:00etan hasiko da ikuskizuna



jam aretoa

1500 pta + Codorniu kopa bat

A flor de piel

Ze iritzi daukazu ikuskizun erotikoei buruz? Joango zinateke horrelako batera?



Maria Antonia Hisado

Ondo iruditzen zait horrelakoak egotea, ni behintzat inolako arazorik gabe joango nintzateke ikustera.




Idoia Odriozola

Beste ikuskizunak bezala, ondo daude denbora pasatzeko. Ni ez naiz egon sekula baina segun zein lagun talderekin edo zelako girotan zauden ondo daude.




Julian Arriaran

Niretako ondo daude. Egonda nago horrelako ikuskizun batean eta fina izaten bada ondo dagoela iruditzen zait. Baina denak ez daude ondo eginda.



Miguel Del Bosque

Ez ondo eta ez gaizki, normala ikusten dut horrelakoak egotea gaur egun. Baina berdin dit Bergaran egiten bada, ni ez naiz joango.



Garikoitz Altuna

Ez da beste munduko gauza, ez da tabu bat izan behar. Ez dakit joango nintzatekeen, orain beharbada ez azterketetan nabilelako baina bestela bai.



Naiara Polvorosa

Lehen Bergaran egon zenean joan nintzen, ondo dago, noizean behin zedozer ikustea... Hurrengoan ezin izango dut, baina gustatzen zaizkit bai.

 BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

MUJIKA GOZOTEGIA

Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

EDEL
TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiانا-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri 

Osasun eta Dietefikan espezializatutako zentrua



Zer iragartzen du ETBk?

Bazen denboraldi bat, telebistarik ikusten ez nuela. Azken larunbat gauetz, ordu laurdeneko tarte galdu horietako bat zela eta, ETB-ko txoritxo pantailaratzea erabaki nuen. Ohi bezala, mandoaren hirugarren botoia zapaldu eta itxaroten geratu nintzen.

Iragarki tarte bat egokitu zitzaidan; gaztelerez mintzo ziren. Denboraren poderioz, botoiak ere ahaztu zitzaizkidalda pentsatu nuen: itxuraz, hura ez zen ETB. Hala eta guztiz ere, zai geratzea erabaki nuen. Gaztelera beste bi iragarkiren ondoren, ezaguna zitzaidan ahots euskaldun baten oihartzuna iritsi zen nire bellarrietara: ETB zen beraz. Futbola nekusan begien aurrean; gaur egun, jendearen atentzio gehiena biltzen duen emankizuna.

Gauza jakina da, atentzio handiko emankizunak oso garrantzitsuak direla iragarkien tarteetarako. Prezio garestiak izan ohi dituzte, eragina ere horren araberakoa izango denaren esperantzaz.

Garbi dago bai, zein den ustezko telebista euskaldun honen eragin mozorrotua: Goenkaleren lorpen haundiuste horien atzean, futbolarena bezalako une are erabakiorragoan, ongi ordaindutako iragarkiak jartzen dituzte. Garestiako ordainarazi nahi dio ETB-ek euskal gizarteari. Hori da emititu diguten mezu nagusia, beraiek beren buruak etengabe saritzen jarraitzen duten bitartean.

Ainhoa AGIRREAZALDEGI



Ahaztutako gerrak

Azken urteotan komunikabideek aurrerakuntza nabarmenak egin dituztela entzuten dugu sarritan. Bazterrik ezkutuenean gertatzen den albistea minutu global eta bakarra bihurtu omen zaigu. Eta antzeko handikeria eta harropuzkeriak jakinarazten dizkigute hitzetik hortzera komunikabide horiek kontrolatzen dituztenek, hain zuzen. Berriak geroago eta azkarrago plazaratu ahal izateko tresnak eta ahalbideak ugaritzen ari direnik ez dut ukatuko. Baina arazoa ez datza teknologiaren azkartasunean, berorren kontrol eta erabilera baino. Izan ere, azkenera orduko bakanaka batzuen eskuetan soilik baitago munduan zehar albistek zabaltzeko ahalmena: nazioarteko berri-agentzia eta komunikabide multinazionalen eskuetan, alegia. Hauek, ordea, nork kontrolatzen ditu? Hor dago, jakina, auziaren gakoa.

Zergatik dute gertakari batzuek hainbesterainoko oihartzuna egunkari eta irrati-telebistetan, beste batzuei -aurrekoak bezain larri eta garrantzitsuak izanda- inolako arretarik jartzen ez zaizkion? Gerren artean ere kategoria desberdinetakoak ditugu: adibidez, israeldar eta palestinarrek urteetan daukaten gatazkaz mila xehetasun jakiten dugu ia egunero, juduei dagokien arazoa da-eta. Baina zenbat gudu eta borroka ez dago hortik zehar, munduko jauntxoei interesatzen ez zaizkielako, behar adina ezagutarazten ez direnak? batzuetan bakea sinatzen denean aitoritzen da ofizialki gerra-egoera bat zegoela, oraintsu Guatemala-koekin ikusi dugun lez. Bestalde, zer gertatzen da orain Kaxmir-en India eta pakistanen artean? Zer iristen zaigu Somaliako gatazkaz? Nola doa Sudaneko gerra luzea? Amaitu al da Liberiako desastrea?... Erantzun garbirik gabeko galdera larregi. Erantzunik ez dugu izango askotan, baina erantzunkizuna bai gehiengotan, problema horiek neurri handi batean Lehen Munduko estatuen jokabidearen ondorioa baitira maiz. Badugu zer jakin eta zer egin.

Jerardo ELORTZA

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

bazkari eta
afariak

**Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR**

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

Bolintxo

OKINDEGIA

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26



Nahikari tabernan

martxoaren 22an 23:00etan

■ Euskararen alde

Zapatuan **Euskal Herrian Euskaraz** taldeak deitutako manifestaldia izan zen herriko kaleetan, **Euskal Herriko justizian euskara** bultzatzeko eskatuz.

“Euskal Herriak izan behar du euskalduna eta librea” zioen pankartaren atzetik ehundaka lagunek egin zuten manifestazioa, “Euskal Herrian euskaraz”, “Independentzia” edo “Euskara askatu” oihuak tartekatuz.

Manifestazioa trikitilari eta hankapaluz lagunduta egin zen eta ondorengo ekitaldian, Plazan, EHEko kide batek Euskal Herria euskalduna izateko frantsesari eta gaztelerari aurre egin behar zaiela azpimarratu zuen, eta euskarak jasaten dituen erasoak salatu zituzten. Ekitaldi amaieran “Eusko Gudariak” abestu zen eta bi enkaputxatuk espainiar konstituzioaren ale bat erretzeko ahalegina egin zuten. Bestalde, ondorengo kontzertuan, **Jam aretoan**, mila lagun inguru bildu ziren.



■ Korrika Bergaran

Puntualitate osoz, **Korrika** Bergarara heldu zen **astelehenean, 3retan**. Korrikaren X. edizioak ikusmin handia sortu zuen herrian eta kaleak jendez gainezka egon ziren euskararen aldeko jaiari parte hartzen edo korrikalariak ikusten. Bergaran egindako zazpi kilometroetan hauek izan ziren testigu-eramaile: **Miguel Altuna, Ipintza eta San Martin ikastetxeak, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolak, Herri Batasuna eta Artatse elkartea, Gestorak, Miguel Altunako ikasle eta irakasleak, eta Xamatx dantza taldea eta Jardun** elkarteko ordezkariak. Nahiz eta Korrika egiteko ordu a proposena ez izan, guztiek sasoi onean daudela erakutsi

zuten, Korrika abiadan igaro baitzen herritik. Domekan Korrika amaierako jaialdia izango da Bilboko Arenalean.



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37



Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sabieskia

SALBADOR, 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

Deco-Textil

ZANGITU

Etixerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



■ **Turismoaren zain**

Datozen egunetan jarriko da Fraskozurin lehen ere martxan izan zen **panel interaktiboa**. Deba Garaiko Mankomunitateak Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin batera landutako proiektu honi esker, erabiltzaileek eskualdeari buruzko xehetasunak jaso ahal izango dituzte bertan: eskualdeko zein herrietako mapak, historia edo arte azalpenak, egin daitezkeen ibilaldiak,

jaiak, zerbitzu ezberdinak, eta abar. Datuak hiru hizkuntzatan jaso ahal izango dira, **gazteleraz, ingelesez eta euskaraz** hain zuzen. Apirilera **frantsesa** ere jarriko da. Bestalde, **Turismo Bulegoa** irekiko da astelehenean Udaletxeko sarreran. Bisita gidatuak egunero egingo dira, bata goizez, 12:30etan, eta bestea arratsaldez, 5 t'erdietan, apirilaren 6ra arte.

■ **Kultur Astea Ipintzan**

Bigarren urtez jarraian, aste honetan zehar Kultur Astea ospatu da Bergarako **Ipintza Institutuan**. Astelehenetik eguakitzera bitartean txalaparta, txotxongilo, malabar, trikiritxa, yoga, dantza edo sukaldaritza ikastaroak, futbolin, tenis edo xake txapelketak, eskalada saioak, Litera aldizkariaren argitalpena, irratsaioak eta beste hainbat ekitaldi izan dira. Horrez gain, Oihulari Klown eta Azpeitiako malabaristen

eta bertsolarien saioekin, Orfeoi Gaztea edo Allnighters taldeen emanaldiekin ere primeran pasa dute ikasleek. Azterketetako hestuasunak ahazturik, ikasleek giro ezinhobea izan dute.



Zertan dihardute ba?



Don Serafin Esnaola

San Antonion hainbat urtetan apaiz egon zen 81 urteko errexildarrak "Trintxerpe, el cierre de una iglesia" izenburuko bere 2. liburua eman du argitara. Liburuak 287 orrialde dauzka eta 1964ko urtarrilean Trintxerpeko eliza itxi zeneko gorabeherak kontatzen dira. Era berean, 1920tik 1964ra bitarteko Trintxerpeko historia azaltzen da, 90 bat argazkiz lagunduta. Don Serafinen hitzetan, "eliza Apezpikutzaren dekretu batez itxi zen eta nabiz eta ni oborez irten handik, kristau komunitatearen izena aldarrikatzeko idatzi dut liburua". Lehen edizioa (500 ale) agortu da dagoeneko.

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Blanca Narbaiza

Bere bi ahizten eraginez, Blanca Narbaiza andereño sartu zen Aranzadi Ikastolan. Dagoeneko 23 urte pasa dira ordutik eta, eskolaurrean eta lehen hezkuntzan (orain 4. mailan ari da) makina bat belaunaldi ezagutu ditu. Musikazale amorratua, Blancak 25 bat urte daramatza Orfeoian abesten.

- Zelan sartu zinen irakasle?
- Kasualidadez, Ikastolan andereñoak behar zirelako.
- Andereño gogorra ala biguna zara?
- Umeei galdetu behar...
- Eta txikitik ikasle ona zinen?
- Normala baina saltsera samarra.
- Eskolaurrea ala lehen hezkuntza?
- Eskolaurrea, baina konpentsazio ezberdinak dituzte.
- Nolako ikasleak dituzu?
- Jende jatorra da.
- Aztoratzen direnean zer egiten duzu?
- Isil isilik geratu aspertzen diren arte.
- Ikasgairik gustokoena?
- Ingurunea (lehengo Gizarte eta Izadi).
- Eta ematea gehien kostatzen zaizuna?



“Haurrak aztoratzen direnean isilik geratzen naiz aspertzen diren arte. Etika iruditzen zait zailena erakusteko. Antzerkia egiteko trebea naiz eta josten traketsa. Rolling eta Beatles ditut gustoko”

- Etika da zailena emateko.
- Lasaia ala nerbiosoa zara?
- Nerbiosoa baina kanporatzen dudana.
- Ikasleen edaderik politena?
- Adin guztiek dituzte beren aspektu politikak.
- Zerk jartzen zaitu sutan?
- Gezurrek.
- Eta zerekin egiten duzu barre?
- Umeekin asko...
- Kantuan egiteko alai egon beharra dago?
- Hobeto kantatzen duzu.
- Dutzan abesten duzu?
- Bai.
- Kantu bat?
- Imagine, Lennon-ena.
- Musika talde bat?
- Rolling, Beatles, Dire Straits...
- Lehen muxua gogoratzen duzu?
- Bai, Bergarako jai batzutan...
- Hobby bat?
- Musika, irakurtzea, ibiltzea...
- Zertan zara trebea?
- Antzerkietan.
- Eta traketsa?
- Josten.
- Interneten sartzen badakizu?
- Ke ba!! Horretan oraindik historiaurrean nago...
- Bizio bat?
- Ez zait gustatzen bizio hitza.
- Miresten duzun pertsona bat?
- Bihotz oneko jende asko, aita adibidez.
- Amets bat?
- Egiptora bueltatzea.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tl. 76 71 19

ETXEBIZITZA

Antzuolan pisua eta gara-
jea salgai. ☎ 76 62 15.

Arrasaten karabanenda-
ko lokalak alokairuan.
☎ 76 38 26.

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 54 98.

Garajea salgai edo alokai-
ruan Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

Pisua salgai Donostian,
Amaran. ☎ 76 31 79.

Atiko amueblatua salgai.
☎ 76 47 27.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 18 46.

Garajea salgai San Lo-
rentzon. ☎ 76 58 28.

Pisu amueblatua salgai
Mugertza kalean, 3. zenba-
kian. ☎ 76 53 79.

Etxe amueblatua alokai-
ruan Koldo Eleizalden.
☎ 76 56 02 (eguerdiz).

Pisua salgai herri-erdian.
☎ 76 25 31.

Pisu amueblatua salgai.
☎ 76 01 44.

Pisua salgai Barrenkalen.
☎ 76 41 38.

Garajea alokatzen da
Ibargarain. ☎ 76 16 38.

Garajeak salgai Torrekuan
eta Espoloian. ☎ 76 33 88.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 76 53 69/13 34 67.

DENETARIK

Suzuki Samurai kotxea
(SS-AF) salgai. ☎ 76 44 53.

Sony pletina bikoitza sal-
gai. ☎ 76 05 38.

Txakurrendako erre-
molkea behar dut. Prezio
onean. ☎ 76 56 05.

Citroen Visa kotxea
egoera onean salgai.
80.000 Km. ☎ 76 05 37.

Nintendo kotsola bat
salgai. 2 mando, 100 joku.
☎ 76 38 71 (Igor).

Irratizale aparailua sal-
gai. Talki Alan 38 CB 27,
base antenak. ☎ 72 13 37.

Ford Orion (25.000 Km)
eta Lada Niva (55.000) ko-
txeak salgai. ☎ 76 39 93.

Betaurreko graduatuak
aurkitu ditut ☎ 76 21 39.

Sango karro-denda salgai.
250 Kg. ☎ 76 33 92.

Mendiko eskiak (1,80 m)
erosiko nituzke. ☎ 76 05 38.

Txirrindulari bizikleta sal-
gai. ☎ 76 50 22 (Karlos).

Gasolinako kotxe teledi-
rijitua salgai. ☎ 76 04 63.

Masajea emateko kamila
erosiko nuke. ☎ 76 24 66.

Ume-kotxea eta jaun-
artzeko jantzia saltzen ditut.
☎ 76 30 13.

Treck modeloko bizikleta
salgai. ☎ 72 13 37 (Mila).

LANA

Mate, fisika eta kimika kla-
seak. ☎ 76 70 40.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska bat behar da ume-
ak zaintzeko. ☎ 76 31 11.

Andrea eskeintzen da su-
kaldari, garbiketa edo ume-
zain lanetarako. ☎ 76 70 85.

Garbiketa lanak egingo
nituzke. ☎ 76 71 21.

Etxeko lanak egiteko nes-
ka behar da. ☎ 76 91 30.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 24 31.

Haurrak edo zaharrak
zaindu eta etxeko lanak e-
gingo nituzke. ☎ 76 06 12.

Klinika auxiliar batek za-
harrak edo helduak zainduko
lituzke. ☎ 76 64 47.

Neska euskalduna beh-
ar da arratsaldez haurrak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. ☎ 76 30 37.

Emakume bat eskeintzen
da astebukaera eta jaiegu-
netan egiteko. ☎ 76 50 46.

Enpresaritzan diploma-
tuak OHoko klaseak ema-
ten ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

Etxeko lanak egin edo
haurrak zainduko nituzke.
Esperientzia. ☎ 76 70 15
(8etatik aurrera).

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren


Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxe: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

BONOFOTOA



Asier Lazkano

Asier Lazkanok jaso du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen Enseñantzako ikastetxea zein urtetan fundatu zuten galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **1799. urtea** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Asier Lazkanori** eman dizkiogu. Zorionak!!

Non aurkitu ditzakegu Bergaran bi iturri hauek?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	44	17	85	30
2. ERROTAGIN	42	17	79	30
3. JAJIA OH ZEREZOS	33	15	52	36
4. BAR CANALEJAS	32	16	59	42
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	23	17	68	62
6. OGIZUN	19	16	41	63
7. ARLOTEAK/OILAGORRA	17	17	61	42
8. PAGOMENDI	16	16	39	54
9. ORTZI	15	16	35	55
10. MONGATXURRA	14	14	39	52
11. AZPEITXI JATETXEA	14	16	51	57
12. MADURA INDUSTRIAS GOI	11	16	40	74
13. UFALA	8	16	33	50

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. KAYAK OS JARDINEIROS	32	17	76	46
2. ARTUSAMAK BERGATRANS	30	17	62	43
3. ETXAGI	30	16	58	53
4. HALTZARI	25	16	49	37
5. UVE BIKOITZA JAM	25	17	42	57
6. LA JUVE	24	17	61	45
7. ERI	23	16	50	44
8. SOROPOTROAK	22	16	43	35
9. EZINLEIKE	22	17	51	56
10. AGIÑASPI	20	16	45	52
11. AGIRREBEÑA JATETXEA	18	16	47	49
12. AUTOBEREZI	16	16	41	83
13. INDARGORRI	14	17	38	92

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	42	17	75	30
2. FAC	39	17	83	39
3. PJS	32	17	64	41
4. NEKROFIKOS	30	17	64	62
5. TXIPIRON	28	16	49	35
6. JAKINA PATXARAN TEAM	27	18	68	53
7. NAHIKARI HOOLIGANS	26	17	59	48
8. MOSKIS	18	16	50	30
9. IGANDEKOAK	15	16	36	58
10. EH BITERRAK	15	16	38	56
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	17	35	92
12. MRW	10	16	53	61
13. GANBARA	10	16	52	64

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITU	48	16	115	23
2. ARBE KIROLAK	43	17	99	38
3. ETENGABE	34	17	53	37
4. OSINTXU	28	17	55	43
5. SLO	28	16	59	24
6. MATXAKATEGI	26	16	60	33
7. XURRUPAK	24	16	37	59
8. KOMANDO PIPERRAK	19	17	53	81
9. AMILOTX	16	17	36	58
10. PANORAMIX	16	16	59	60
11. PATA NEGRA	15	16	38	90
12. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	17	39	85
13. ALDOKA MALDOKA	8	17	36	62
14. PHTIXAK	0	0	0	0

Jokozkanpo



Asier Maure

AZPEITXI JATETXEA

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Nahiko kaskar gabilta, partidu asko gol baten aldearekin galdu ditugu.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

Ondo konpontzen gara eta txarrena, guztiok indibidualistegiak gara.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, baina aurkakoari heltzeagatik. Partiduak goizez ala arratsaldez? Domekan baldin bada, arratsaldez, bestela berdin zait.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa Etxagi.

JOKALARIRIK ONENA?

Juan Luis Etxaniz.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK

HANDIENA?

Ez dut gogoratzen zeini, baina 16 gol sartu genizkion.

ETA JASOTAKOAK?

8 eta 0 galdu genuen A Ze Flaxa Etxagiren kontra.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO

DUZUE?

Erdialdean.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK

ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

EUSKAL HERRIKOAK?

Indurain.

JATEKO PLATER BAT?

Bisigua.

EMAITZAK

ETENGABE-AMILOTX	4-0
KOMANDO PIPERRAK-PANORAMIX	2-6
OXINTXU-ALDOKA MALDOKA	0-3
SLO-ARBE KIROLAK	0-2
A ZE FLAXA ETXAGI-ERROTAGIN	4-4
OGIZUN-AZPEITXI JATETXEA	4-3
KAYAK OS JARDINEIROS-INDARGORRI	6-2
SOROPOTROAK-ERI	2-2
LA JUVE-ARTUSAMAK	4-3
AGIRREBEÑA JATETXEA-ETXAGI	2-3
UVE BIKOITZA JAM-EZINLEIKE	0-3
ARLOTEAK-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-2
CONSTRUCCIONES BERGARA-PATXARAN TEAM	0-5
GUADALEST-FAC	2-4
BAR CANALEJAS-MADURA INDUSTRIAS GOI	5-0

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

- 09:00: KOMANDO PIPERRAK-AMILOTX • IGANDEKOAK
- 10:00: IGANDEKOAK-PJS • GANBARA
- 11:00: GANBARA-PATXARAN TEAM • PJS
- 16:00: NAHIKARI HOOLIGANS-FAC • AGIÑASPI
- 17:00: AGIÑASPI-HALTZARI • ORTZI

Zapatuan kanpoan

- 12:00: SOROPOTROAK-LA JUVE • ERI
- 13:00: AGIRREBEÑA JATETXEA-ERI • SOROPOTROAK
- 16:00: OGIZUN-A ZE FLAXA ETXAGI • AZPEITXI JATETXEA
- 17:00: BAR CANALEJAS-AZPEITXI JATETXEA • PAGOMENDI
- 18:00: PAGOMENDI-ERROTAGIN • BAR CANALEJAS

Domekan barruan

- 09:00: EH BITERRAK-TXIPIRON • PANORAMIX
- 10:00: PANORAMIX-ARBE KIROLAK • TXIPIRON
- 16:00: ETENGABE-ALDOKA MALDOKA • PATA NEGRA
- 17:00: MANITU-PATA NEGRA • MATXAKATEGI
- 18:00: SLO-MATXAKATEGI • MRW
- 19:00: MRW-MOSKIS • NEKROFIKOS
- 20:00: GUADALEST-NEKROFIKOS • MOSKIS

Domekan kanpoan

- 09:00: NAHIKARI HOOLIGANS-GANBARA • MADURA
- 10:00: MONGATXURRA-MADURA • ARTUSAMAK
- 11:00: AGIÑASPI-ARTUSAMAK • MONGATXURRA
- 16:00: EZINLEIKE-INDARGORRI • AUTOBEREZI
- 17:00: AUTOBEREZI-ETXAGI • HALTZARI
- 18:00: KAYAK OS JARDINEIROS-HALTZARI • ETXAGI

OHARRAK

ANTOLAKETA BATZORDEAK PARTIDUAK ORDUAN HASTEAN ESKATU DU. AURRERANTZEAN 10 MINUTUKO ATZERAPENA ONARTUKO DA; GEHIAGO ATZERATUZ GERO, PARTIDUA EZ DA JOKATUKO ETA BERANDU AURKEZTU DEN TALDEA GALTZAILEZAT JOKO DA. BESTALDE, UVE BIKOITZA JAM ETA OSINTXU TALDEAK TXAPELKETATIK BOTA EGIN DITU ANTOLAKETA BATZORDEAK, PARTIDUAK JOKATZERA EZ AURKEZTEAGATIK.

T XINPARTAK

Gorka Fernandez 3. Gipuzkoako txapelketan

Gorka Fernandez Beti Busti piraguismo taldeko kirolaria 3. geratu zen kadete mailako Gipuzkoako piraguismo txapelketan. Txapelketa joan zen astebukaeran jokatu zen Bidasoa ibaian. Era berean Beti Busti taldetik jakinarazi digutenez, aurtengo denboraldirako aseguruak ateratzeko epea zabalik dago. Informazio gehiago 76 21 60 telefonoan.

Kirol ikastaroak

Eskola kiroleko monitorea eta entrenatzaileentzako ikastaroa izango da apirilaren 2an eta 3an Errotalde kultur etxean. Izena emateko epea asteazkenean bukatuko da. Informazio gehiago Udal Kirol Zerbitzuan edo 77 91 35 telefonoan.

Axen Garitano Espainiako Txakur Leren Txapelketan laugarren

Axen Garitanok joan zen asteburuan Baqueira Bereten bukatu zuen aurtengo Espainiako Txakur Leren Txapelketa. Garitanok Formigal eta Baqueiran jokaturako Estatuko txakur leren bi probetan bere mailako 4. postua lortu du.

Bestalde, Pirena proba laga egin behar izan zuen lesio baten erruz eta Formigaleko proban arazoak izan arren ondo ibili zen. Halere, postu hobea lortzeko aukerak izan zituela aipatu digu: *"lagun batek txakur bat laga zidan oso ona zelako, aurrean jarri nuen, baina ez zuen espero bezela tira egin. Hor denbora asko galdu nuen eta sailkapenean espero baino atzerago geratu nintzen"*.

Txakur leren munduan 8 urte daramatza eta Pirena proba, Pirinioak txakur lerekin alde batetik bestera zeharkatzea, bi aldiz amaitu du. Espainiako txapelketako probak jokatu ondoren eta Pirena



Formigalen jokaturako lasterketan ateratako argazkia.

bukatu ondoren, apirilaren 6an Gorlan jokaturako lasterketan parte hartzeko asmoa du. Horrez gain, maiatzaren lehenengo astean Donostiako hipodromoan izango den txakur erakusketa batean parte hartuko du. Halere Garitanok datoren urterako asmo berriak ditu: *"Esponsorra lortu dut, Nutro etxea, eta ditudan 21 txakurren janaria urte osorako ordainduko dit. Hori ikusi-*

rik, segurua ez den arren, Frantzia egiten diren proba batzuetan parte hartzeko asmoa dut".

Gorlan jokaturako den probarako hasi dira dagoeneko gonbidapenak bidaltzen eta ziurtatuta dago jokaturako bi edizioen irabazlea, Goio del Real madrildarra, lasterketan izango dela. Zirkuitoa beste urte batzuetakoa izango da eta lasterketa kantina parean goizeko 11etan hasiko da.



Txikizioak kirol instalazioetan

Bergarako kirol instalakuntzetan hainbat txikizio izan dira azkenengo asteetan. Migel Altuna institutuko eta Aranzadi ikastolako pistak banatzeko jarritako sarea apurtu dute. Horrez gain, Labegarrietako tenis pistan mailuka batekin tenisean jokatzeko erabiltzen diren zutabeak gordetzen dituzten metalezko tapak erahondatuegin dituzte. Hori gutxi balitz, Elorregiko frontoian argia pizteko kandadu bat serratu dute eta beste frontoi batzuetan ere kalteak eragin dituzte ezezagunek. Udalak kalte guzti horien konponketa bere gain hartuko du eta Migel Altuna Institutuarekin hitzarmena sinatuko du bertako instalazioak erabili ahal izateko.

KARTELDEGIA

Gorka Martin

Euskadiko txapelkunordea

FUTBOLA

◆ Bergara-Urki

2. Erregional maila.

Domeka. 16:45.

Ipintza futbol zelaia.

◆ Bergara-Arantzazuko Ama

Ohorezko mailako infantilak.

Domeka. 11:30.

Ipintza futbol zelaia.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Gros Loiola

Kadete neskek.

Zapatua. 12:15.

Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Zarautz

Kadete mutilak.

Zapatua. 10:00.

Mariaren Lagundia.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Zarautz

Kadete neskek.

Zapatua. 19:15.

Kiroldegia.

PILOTA

◆ Gallastegi aita-semeak-

Etxalde eta Irureta

Udal Kirol Zerbitzuak

antolatutako eskuz binakako

txapelketa.

Eguakitza. 20:00.

Zabalotegiko Pilotalekua.

Gorka Martin pilotariak jubenil mailako Euskadiko ligaren finala galdu zuen zapatuan Uberraren kontra. Galdu arren Martinek txapelketa bikaina jokatu du eta bere mailako pilotari onenen artean dagoe-la erakutsi du.

- Ze moduz finala?

- Ez nago oso pozik egindako jokoarekin. Ez nuen gauza gehiegirik egin eta kontrarioak ere ez.

- Zergatik galdu zenuen?

- Uste dut ez nintzela sasoi onenean joan. Partidu ona egiteko asmoarekin irten nintzen, baina mano-manoan sarea oso garrantzitsua da. Asko kostatu zitzaidan aurkariaren sarea errestatzea eta hor joan zitzaidan partidua. Ateratzen hasi nintzen eta 4 eta 0 irabazten joan nintzen, baina gero besteak hartu zidan sarea...; azkenean 22 eta 7 galdu nuen.

- Txapelketan egindako lanarekin pozik zaude?

- Bai, txapelketan oso gustora aurkitu naiz. Mano-manoa asko gustatzen zait eta ondo moldatzen naiz, baina ez nuen espero finalera heltzea.

- Partiduetan hobeto ibiltzeko kontzentrazioa falta zaizula diote adituek.

- Egia izatea baliteke, baina lehen aipatu dudana bezela sarea errestatzea da gehien kostatzen zaidana.

- Espero zenuen finalera heltzea?

- Ez, lehenengo fasean kanpoan geratu nintzen, baina gero lesionatu baten ordeztatu nintzen eta hortik finaleraino.

- Ze txapelketa jokatuko dituzu?

- Orain Elgetakoa jokatuko dut. Bi kanporaketa pasatzen baditut konforme geratuko naiz. Pilota denboraldiaren momenturik gorenean gaude eta txapelketa pilola ditugu.

- Atletismoan ere aritzen omen zara.

- Bai, azkenaldian lagata daukadan arren. Abiadurazko probak gustatzen zaizkit batez ere eta pilotan jokatzeke ere

ondo etortzen zait atletismoa.

- Zure jokoaren gauzarik onena?

- Daukadan afizioa. Pilota asko gustatzen zait eta partiduak bizi egiten ditut.

- Afizioa jende askok dauka, baina gutxi dira final batera heltzen direnak...

- Bai, horrez gain uste dut sakatzen ondo moldatzen naizela.

- Profesional mailako banakako txapelketa nork irabaziko du?

- Hor daude Eugi eta Beloki, baina niri Elkorok irabaztea gustatuko litzaidake.



"Elgetako txapelketan jokatzeke izena eman dut".

"Sakean ondo nabil baina errestatzea asko kostatzen zait"



Argazkia: Mila Agirrezabal

Lehen jaunartzea

Aste Santu ostean lehenengo jaunartzeekin ekingo zaie. Hain zuzen ere apirilaren 13an egingo dute 7-8 urteko neska-mutiko koskorrek. Argazkian agertzen direnek ere apirilaren 13 batean egin zuten lehen jaunartzea Santa Marinaran. 1963an jaiotako neska-mutikoak dira, gaur egun 33-34 urte dituztenak eta guztien izenak jakitea ezinezkoa izan bazaigu ere, hona hemen ezkerretik-eskumara eta goitik hasita, ezagutu ditugunen izenak:

Lehenengo ilaran: Judith Agirre, Beatriz Zeziaga, Beatriz Elkoroberezibar, Matxalen Azpiazu, ezezaguna, Maite Larrañaga, Miren Berasategi, Mirari Alberdi, ezezaguna eta Agurtzane Olabarria.

Bigarren ilaran: Yolanda Berasategi, Jaione Iturbe, Ane Goenaga, Agurtzane Jauregi, Edurne Barrenetxea-Arando, Zuriñe Agirrezabalaga, Arantzazu Iztueta, Edurne Beistegi, Mila Agirrezabal, Idoia Retegi eta ezezaguna.

Hirugarren ilaran: Iosune Iza, Ana Galdos, Iosune Agirre, Elena Odriozola, Arantzazu Oregi, Puy Garcia, Edurne Gantxegi, Amaia Aranzabal, Maite Maiztegi, Ane Mujika, Inmaculada Zabaleta eta Montse Aranburu.

Lugarren ilaran: Josean Arenaza, ezezaguna, Martin Garitano, Iokin Laskurain, ezezaguna, ezezaguna, Migel Angel Larrañaga, Marisol Juaristi, Jose Migel Errasti eta Maite Errasti.

Aurrealdean: Paul Mujika, Jaime Azkarate, ezezaguna, Jon Agiriano, ezezaguna, Mikel Eraña, ezezaguna, Ramon Elgarresta eta Aitor Aranburu.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



**ALAI
GARAJEA**

IREKI BERRIA



Plácido dos Santos

Urarte, 12 Bergara Tl. 76 22 96


Era guztietako konponketa-lanak.

Mekanika-Elektrizitatea.

Auto-salmenta: berriak zein erabilitakoak.

**Konponketek 10.000 km. edo 6 hilabeteko
garantia dute.**

"Ford" Espezialitatea
Subkontratatuak:
txapa eta pintura.



ELKAR ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

**Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA**

RKUZ




altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala


FAGOR 

Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert 

banatzaile ofiziala
Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97

Aretxabaleta